

100. zenb.

XL. URTEA
2022 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia

Hitzaurrea

e-HIZPIDE. 100. ZENBAKIA

Zenbaki biribilak ematen direnean atzera begiratzeko aukera izan ohi da, baita egiteke dagoenari erreparatzekoa ere. Hala gertatu zaigu oraingoan: e-Hizpide aldizkariaren 100. zenbakia iritsi da aldizkariaren ibilbide osoaren 40. urtean.

HABEren sorreratik arreta berezia eskaini zaio helduen euskalduntzean ari diren irakasleen prestakuntzari, eta, besteak beste, e-Hizpide aldizkaria argitaratzen du HABE erakundeak.

Gogora dezagun e-Hizpidek berezko esparru dituela lehen hizkuntzaren eta xede-hizkuntzen ikas-irakastearekin zerikusia duten zientziak eta esparruak. Horregatik ematen ditu argitara Psikolinguistika, Euskal Filologia, Linguistika aplikatu, Soziolinguistika, Andragogia, Pedagogia, IKT eta Kudeaketa Akademikoaren inguruan idatzitako artikulak; betiere, irakurleen ezagupena sendotu eta guztion arteko eztabaida emankorra sorrarazi eta informazio esanguratsua emateko asmoz.

Horrela, eta gaingiroki bada ere, eman diezaiozun begiratu bat aldizkariaren sorreratik 2022ra bitartean egindako ibilbideari, baita etorkizunari begirako asmoei ere.

IRAGANA

1983an sortu zen Zutabe. [1. zenbakiaren sarreran](#) ziotenez, euskalduntze-alfabetatze gaietan aldizkari tekniko baten premia ikusi zuen orduan HABEk eta berehala ekin zitzaion lanari. Honako hau zehaztu zen helburu nagusi gisa: "hizkuntzen irakaskuntza eta alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketa berriak ezagutaraztea".

Lehendabiziko hamar urteen ibilbidea [zenbaki monografiko batean dago jasota](#). Argia izan zen eragiketa: hamar urte, lau hileko bakoitzean zenbaki bat, hogeita hamar zenbaki. Euskara-irakasleen prestakuntzarako aldizkaria zela azpimarratu zen orduan ere. Badago lehenagoko gertakari aipagarri bat. 1991. urteko 1. zenbakian, [25.ean](#) alegia, aldaketak egin ziren: orrialde-kopurua murriztu, neurri handiagoan argitaratu, gai monografikoak ohiko zenbakietatik bereizi eta zenbaki monografikoen sortari ekin, atalak egokitu... Aldizkari irakurterrazagoa eta erakargarriagoa egitea zen asmoa.

Beste mugarri bat historian: lehendabiziko izen-aldaketa etenaldi baten ondoren. Izan ere, 1994an [34. zenbakia](#) plazaratu ondoren 1996an agertu zen hurrengoa, [35.a](#). Begien bistakoa zen bilakaera: *Zutabe* izena aldatu eta *Hizpide* izan zen handik aurrera agertuko zena.

Ordukoa ez da izan ibilbidean izandako etenaldi bakarra, beste hiru gertatu baitira: 1998an lehenengoa, 2000. urtean bigarrena eta 2012an hirugarrena. Dena den, indar berriz ekin zitzaion hiru une horietan eta 2015era arte antzeko bidetik jo zen. Funtsezko erabakiak hartu ziren orduan.

Nagusiena, estrategikoa dela esan genezake: paperezko argitalpena izateari uztea eta erabat digitala izatea. Hartutako beste zenbait erabakirekin bat zetorren; izan ere, 2015eko abenduan jarri baitzen martxan [Irakasbil ataria](#). Ondorioz, [2015eko iraila-abenduko 87. zenbakia](#) izan zen paperean argitaratu zen azkena. Izena ere egokitu zen: *e-Hizpide* izan zen hautatutakoa.

Horrez gain, aldizkariaren berezko ezaugarriak birdefinitu ziren 2016rako: *Irakasbil* atarian egotea, seihilekoa izatea, maketazio berria, atalen berregokitzapena, aldizkari digitala zen heinean berezko ISSNa izatea, artikulua batera ez argitaratzea eta zenbakia epea amaitutakoan ixtea berezko nortasuna mantentzeko katalogazioetarako... Horrekin batera, beste ahalegin handi bat egitea erabaki zen: paperean argitaratutako guztia digitalizatzea eta *Irakasbil* atarian interesatu orenen eskura doan jartzea.

Eta badago, gure ustez, gerora hartu den beste erabaki garrantzitsu bat: aldizkariari berari, zenbaki bakoitzari eta artikulua bakoitzari [DOI deritzon identifikadorea](#) (*Digital Object Identifier*, ingelesez) ematea. Halaxe egin da 98. zenbakitik aurrera. Edozein eduki digital modu iraunkorrean identifikatzeko modua da DOI; kode bakarra da eduki jakin baterako eta ezin da errepikatu. Azpian zenbait metadatu daude. Web-orrialdeetarako erabiltzen diren URLen formatu bera dute, baina, horiek ez bezala, estekak ez dira desgertzen edo hausten, edukia lekuz aldatu arren. Azken finean, eduki hori beti eskuragarri egotea ziurtatzen du DOI identifikadoreak, nahiz eta URLa aldatu. Gainera, artikuluetako aipuak eta bibliografia APA (*American Psychological Association*) estiloaren araberakoak izatea zaintzen da, berori delako maila zientifikoan ezagunena eta zabalduena. Artikuluen luzera gainditzen duten ekarpenetarako formatu egokiagoa delakoan, zenbaki monografikoen sorta berpiztu da 2021ean, eta berezko tokia du *Irakasbil* atarian dagoen "Argitalpenak" eremuan. Hala, 1991-2001 tartean lau argitaratu ziren guztira eta era digitalean hiru eman dira argitara jada. Ikerketek ere badute tokia esparru honetan.

Aldizkariak izan dituen lankide eta kolaboratzaileak ezin dira ahaztu, jakina; hamaika izan dira 40 urtean, HABEkoak zein erakundetik kanpokoak. Bihoakie hemendik gure eskerrik zintzoena, haien ahaleginik gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea. Halaber, arduradun desberdinak izan ditu aldizkariak, betiere HABEren Glotodidaktika edo Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren zuzendaritzapean. Are, zuzendaritza-batzordea ere izan zuen 1996 arte. Zeregin horietan, HABEko zenbait kideren partaidetzaz gain, koordinatzaile-editoreek aipamen berezia merezi dutelakoan gaude. Bost izan dira 40 urteotan eginkizun horretan aritu direnak. Imanol Irizarrek izan zuen ardura 1983 eta 1984an. Hamar urtez jardun zuen Joanba Bergarak ondoren, 1994a arte hain zuzen. Josu Perales izan zen hurrengoa, 1996tik 2012ra. Hiruek egindako lanen gorabeherak eta zituzten iritziak 80. zenbakian daude jasota, aldizkarian egindako elkarrizketa batean: [79 + 4 urratsen ondoren](#). Hura ere hausnarketarako une egokitzat jo zen. Azkenik, 2013tik Iñaki Muruak dihardu zeregin horretan, bakarrik hasieran eta Borja Ariztimuñorekin batera 2021etik aurrera.

ORAINA ETA GEROA

Aldatzen joan diren egoera eta testuinguruei erantzun egokia emateko saiakera eginda (artikulugileentzako irizpideen egokitzapenean, gaietan edota aldizkariak dituen ataletan, besteak beste), urte guztiotan zehar izandako xedea ez da aldatu: helduen euskalduntzean ari den irakaslearen gaitasun profesionalaren garapenerako aukera eskaintzea argitalpen tekniko baten bitartez. Arego oraindik: jakin badakigu aldizkaria Interneten modu irekian egoteak bestelako oihartzuna eta erabilera ondorioztatzen dituela.

Argitalpena osasuntsu dago, artikulu eta zenbaki monografiko berriak bidean daude eta. Dena den, ahalegin berezia egingo da hasiera-hasieratik aipatutako iturri jakinetatik (euskaltegiatik eta Euskal Herriko unibertsitateetatik, esaterako) ekarpenak ugaltu daitezkeen.

Momentuz, *e-Hizpide* duen izaerari eutsiko dio: zenbaki irekikoa eta argitalpen jarraitukoa. Alegia, seihilekoa hasten denean zenbaki berria irekitzen da, eta denbora-tarte horretan plazaratzen dira pixkanaka-pixkanaka artikulu berriak, eta, epe hori bukatutakoan itxi egiten da eta katalogatu, [Dialnet](#) edo [REBIUN](#) bezalako zerbitzuetan, besteak beste.

Beste alde batetik, *Irakasbilen* eskaintzen diren edukiekin bateragarria izango da aurreantzean ere bai; hau da: hausnarketa-maila edo gaiagatik sakonagoak diren ekarpenak jasoko dira *e-Hizpiden*, eta beste lanketa-maila apalagoa dutenak sarrera gisa plazaratuko dira. Iruzkina egiteko bidea ere ez da etengo, eztabaida aberasgarriak sor daitezkeelakoan.

Halaber, eta hasita dagoen lanari jarraipena emanez, 40 urteotan argitara eman diren eduki guztiei DOI identifikadorea emango zaie gutxika-gutxika hurrengo hilabeteetan, eduki guztiek arestian aipatutako onurak izan ditzaten.

Laburbilduz, eta aldizkariaren edukien aurkezpenetan hainbat aldiz erabili den esapi-dearekin bukatuko dut, iparrak bere horretan diraelako: probetxuzkoa izan dakizkizula, irakurle.